

## **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Guk aukeratutako proiektua, labur esanda, pertsonen beharrak asetzeko eginda dago. Argi dago, umeez, helduek nahiz adinduek geroz eta laguntza gehiago behar dutela beren egunerokotasunean hainbat arrazoi direla eta. Adibidez, umeen zaitza, etxeko lanak, erosketak....

Oso interesgarria eta baliagarria dela iruditzen zaigu proiektu hau, benetan laguntzaren beharra duten pertsonekin lan egiten dugulako. Askok bakarrik edota arazo batzuekin bizi dira eta beste norbaiten babesa eta laguntza behar dute. Hori dela eta, eguneko 24 orduak beraiekin harremanetan egon ahal izateko gure enpresaren (Zerbilagun) aplikazio bat sortuko dugu. Aplikazio honen bidez, herrietako biztanleek, behar dituzten zerbitzuak eta laguntzak eskatzeko aukera dute.

Beraz lortu nahi dugun helburua laguntza behar duten pertsonen eguneroko gauzak egiteko norbait edukitzea da, bizitza errazteko eta gustura egoteko, baita laguntza behar dutenean, haien ondoan norbait egongo dela jakitea ere.

Bukatzeko, proiektu hau nola bururatu zaigun azaltzea gustatuko litzaiguke. Izan ere, taldekide guztien artea “Brain Storming” bat eginez, hainbat ideia izan genituen. Gehiengoa zerbitzu bat eskaintzeko proposamena zen. Beraz, ideia guzti horiek batuz, adin desberdinetako pertsonen zerbitzuak eskaintzea ideia ona izango zela pentsatu genuen. Gaur egun, teknologia berrikuntzaren eraginez, horrelako zerbitzua eskaintzeko erraztasuna dago. Gainera, zerbitzu anitzak sortu ditugu denak eskubide berdinak izateko eta laguntza mota ezberdinak jaso ahal izateko.